



**C.H. SOLOGOEN**

**C.H. SOLOGOENEK DEITUTAKO LEHIAKETAREN KLAUSULA ADMINISTRATIBO  
BEREZIEN PLEGUA, PROZEDURA IREKIAZ ESLEITZEARI BEGIRA, GILTZA ESKUAN  
ERAKOA, 20 kW-eko EGUZKI INSTALAZIO FOTOVOLTAIKO BAT HORNITU,  
JARRI, ABIARAZI ETA MANTENTZE PREBENTIBOA KONTRATATZEKO**

**ESPEDIENTE ZENB.:**

SOLOGOEN/11/001

PROZEDURA IREKIA

**Bilbon, 2011ko apirilaren 11an  
Rosa Madina Romero and.  
C.H. SOLOGOEN, S.A.ko kontseilaria eta ahalduna**



## KARATULA

**ADJUDIKATZEKO ERA:** Lehiaketa irekia.  
**ESPEDIENTE ZENB.:** SOLOGOEN//11/001

### **A. KONTRATUAREN XEDEA**

20 kW-eko eguzki-instalazio fotovoltaiko bat hornitu, jarri eta abiarazteko kontratua egitea, giltza eskuan erakoa, eta haren mantentze prebentiboa kontratatzea hiru urteko (3) eperako Plaentxi herri ikastetxearen estalkian, Soraluze udalerrian kokatua

### **B. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA**

C.H. SOLOGOEN, S.A., honako helbide hau duena: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo.

- Pertsona arduraduna, teknikaria: Iñaki Boveda
- I.F.Z.: A202214995
- Telefonoa/faxa/posta elektronikoa: 94-403.56.56 /94-403.56.99/ [iboveda@eve.es](mailto:iboveda@eve.es)
- Kontratatzailearen profila: [www.eve.es](http://www.eve.es)

### **C. JARRIKO DEN Wp BAKOITZAREN ETA URTEKO MANTENTZEAREN GEHIENEO PREZIOA**

- Jarriko den Wp bakoitzaren gehieneko kostua ez da hiru euro eta berrogeita hamar zentimo (3,50) baino gehiago izango, gehi BEZari dagokion 0,63 euro. Beraz, guztira, lau euro eta hamahiru zentimo (4,13) izango da gehieneko prezioa, BEZa barne.
- Instalazio bakoitzaren mantentze prebentiboa hiru urteko eperako ez da laurehun euro (400) baino gehiago izango urtean, gehi BEZari dagokion 72 euro. Beraz, guztira, laurehun eta hirurogeita hamabi (472) euro izango da gehieneko prezioa, BEZa barne.

Baldintza horiek betetzen ez dituzten eskaintza guztiak baztertu egingo dira.

### **D. IZAPIDEA**

Ohiko izapidea

### **E. PROPOSAMENAK JASOTZEKO AZKEN EGUNA**

Eskaintzak edo proposamenak 2011ko maiatzaren 2ko 12:00ak arte jasoko dira.

### **F. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA**

Proposamenak C.H. SOLOGOEN, S.A.ren izenean aurkeztuko dira, honako helbide honetan: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo.

### **G. BEHIN-BEHINEKO BERMEA**

Ez dagokio.

### **H. BEHIN BETIKO BERMEA**

Kontratuaren prezioaren ehuneko bosta (%5) izango den zenbatekoa (BEZa gabe).

### **I. PREZIOEN BERRIKUSPENA**

Ez dagokio.

### **J. GAUZATZEKO LEKUA ETA EPEA**

Lekua: Plaentxi herri ikastetxearen estalkian, Soraluze udalerrian, Gipuzkoa, kokatua.



Epea: Lau (4) hilabete, kontratua sinatzen denetik kontatzen hasita.

**K. GUTXIENKO BERMEAREN EPEA**

Instalazio fotovoltaikorako ezartzen den gutxieneko bermearen epea hiru (3) urtekoa da.

**L. PUBLIZITATEAREN GASTUAK**

Ez dagokio.

**M. ALDAGAIEN ONARPENA**

Ez dagokio.

**N. KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZARIOA ETA TEKNIKOA**

Plegu honen 8.5 klausulan adierazten den dokumentazioa aurkeztu behar da.

**O. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK**

Esleipena erabakitzeko erabiliko diren irizpide orokorrak hauexek dira:

Irizpidea	Deskribapena	Puntuak
<b>B gutun-azala. formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak</b>		
1	<u>INSTALAZIOAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK</u> Memoria deskriptiboa eta lan-metodologia Lan-taldea Jartzen diren bitarteko materialak Proposatzen diren hobekuntzak	20
2	<u>PLANIFIKAZIOA</u> Lanen planifikazioa eta lan horiek egiteko proposatzen den egutegiaren koherentzia	10
3	<u>BERMEA</u> Bermeari dagozkion epeak (instalazio osoa, alderanzgailuak eta moduluak) Bermeei lotutako estaldurak Bermean aurreikusten ez diren gastuak	20
<b>C gutun-azala. formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak</b>		
4	<u>PREZIOA</u> Jarriko den Wp prezioa zuzenduta	40
5	<u>MANTENTZEA</u> Urteko prezioa eta aurreikusten ez diren gastuak	10
<b>GUZTIRA</b>		<b>100</b>

Prezioari eta mantentzeari lotutako irizpideak balioesteko, honako formula honen arabera egingo da:

**Jarriko den Wp prezioa zuzenduta**  
**Gehienez 40 puntu, 100 puntu artean**



20 puntu lortuko duen eskaintzaren aldean, beheko ehuneko puntu bakoitzeko puntu bat gehituko da; guztira, gehienez, 40 punturaino.

20 puntu lortuko duen eskaintzaren aldean, gorako ehuneko puntu bakoitzeko puntu bat kenduko da; guztira, gutxienez, 0 punturaino.

Beheko edo gorako ehuneko puntuak esleitzeko, aterako diren kantitateak handiagora edo txikiagora biribilduko dira ehuneko puntu hurbilenera. Kantitatea ehuneko puntuaren erdia izango balitz, gorako ehuneko puntura biribilduko litzateke.

**Mantentzea**  
**Gehienez 10 puntu, 100 puntu artean**

- Urteko prezioa (euro), instalazioaren berme aldia [Gehienez 4 puntu]

Urtean 250 € baino gutxiago	4 puntu
Urtean 251 € eta 300 € artean	3 puntu
Urtean 301 € eta 350 € artean	2 puntu
Urtean 351 € eta 400 € artean	1 puntu

- Urteko prezioa, instalazioaren berme alditik at (%) [Gehienez 2 puntu]

Prezioaren aldean, mantentzearen prezioa berme aldia %5 gehitzen bada	2 puntu
Prezioaren aldean, mantentzearen prezioa berme aldia %5 eta %10 artean gehitzen bada	1 puntu
Prezioaren aldean, mantentzearen prezioa berme aldia %10 baino gehiago gehitzen bada	0 puntu

- Lekualdaketarako gastuak (bai/ez) [Gehienez 2 puntu]

Barnean badaude	2 puntu
Barnean ez badaude	0 puntu

- Langileei dagozkien gastuak (bai/ez) [Gehienez 2 puntu]

Barnean badaude	2 puntu
Barnean ez badaude	0 puntu

**P. ZIGORTZEA**

Plegu honetan aurreikusten direnak.

**Q. LUZAPENA**

Ez dagokio.

**R. LANAK ZATIKA JASOTZEA**

Ez dagokio.

**S. PREZIOAREN ORDAINKETA**

- (i) Giltza eskuan erako instalazio fotovoltaikoa hornitu, jarri eta abiarazteko lanen ordainketak transferentzi bidez egingo dira, honako modu honetan:



- Kontratua sinatzean, lehen ordainketa egingo da, egitasmoaren guztizko prezioaren %25 izango dena.
- Ekipoak jasotzean eta instalazio guztien muntaketa fasea hastean, %30 ordainduko da.
- Instalazioaren muntaketa amaitzean, %30 ordainduko da.
- Gainerako %15a, instalazioa behin-behinean jasotzean. Gehienez ere, aldi horrek bi (2) hilabete iraungo du, muntaketa amaitzen den egunetik kontatzen hasita, betiere, atzerapenak zerikusirik ez badu instalatzailearekin.

Zatikako ordainketa horietako bakoitza hogeita hamar (30) egun naturaleko epean egingo da, esleipendunak modu egokian C.H. SOLOGOEN, S.A.ri dagokion faktura ematen eta azken horrek onartzen duen egunetik kontatzen hasita.

- (ii) Mantentze prebentiboari dagozkion kantitateak urtean egingo diren hiru (3) ordainketen bidez kitatuko dira, adostutako mantentze lanak egin ondoren eta C.H. SOLOGOEN, S.A.k txosten teknikoak eta faktura jaso eta gero.

Zatikako ordainketa horietako bakoitza hogeita hamar (30) egun naturaleko epean egingo da, esleipendunak modu egokian C.H. SOLOGOEN, S.A.ri dagokion faktura ematen eta azken horrek onartzen duen egunetik kontatzen hasita.

#### **T. HIZKUNTZA BALDINTZAK**

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko 6. artikuluan eta azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean (euskararen erabilera arautzekoa) eta hura garatzen duen araudian xedatutako hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren mende dago.

Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea kontratuaren gauzatze baldintzetako bat da. Hala, bada, betetzen ez bada, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeagatik aurreikusi diren ondorioak aplikatuko dira; ez bada, gauzatu beharreko kontratuak berezko dituen ezaugarriek eskatu egiten dutela nahitaez beste hizkuntza bat edo batzuk modu eskusiboan erabiltzea. Dena den, neurri horrek kontratuaren baldintza orrian edo pleguan agertu beharko du.

#### **U. KONTU FISKALEI, INGURUMENARI, EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI, ENPLEGUA BABESTEARI, LANEKO BALDINTZEI ETA LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEARI BURUZKO INFORMAZIOA**

Kontratu honetan interesa duten enpresek fiskaltasunari buruzko informazioa lor dezakete Foru Aldundietan.

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza saileko Lana eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzan egongo da enplegua babesteari, laneko baldintzei nahiz laneko baldintzei buruzko gaietan indarrean diren xedapenei buruzko informazioa. Horiek guztiak gehi kontratuaren agirietan aurreikusi klausula gehigarriak aplikatzekoak izango dira kontratua exekutatzeko orduan.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumena eta Lurraldearen Antolamendua saileko Ingurumen sailburuordetzan egongo dira –IHOBE sozietate publikoaren bidez– kontratua exekutatzeko aplikatzekoak diren ingurumen auziei buruzko indarreko xedapenen informazioa eta kontratuko agirietan aurreikusi klausula gehigarriak.

Horrela, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundearen aurkituko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasun gaietan indarrean diren eta kontratua exekutatzeko orduan aplikagarriak diren xedapenei buruzko informazioa.



## OINARRIZKO BALDINTZAK

### 1. ARAUBIDE JURIDIKOA

#### 1.1. Kontratuaren araubide juridikoa:

- Oinarrizko Baldintzen Plegu honetan eta bere karatulan zehaztutakoa, baita Zehaztapen Teknikoen Txostenean jasotzen dena ere. Horrekin batera, C.H. SOLOGOEN, S.A. (aurrerantzean **“SOLOGOEN”**) onartutako Kontratatzeko Barne Jarraibideetan adierazitakoa (**“KABI”**) eta Kontratatzailearen Profila edo Eskakizuna atalean argitaratua ([www.eve.es](http://www.eve.es)) eta esleipendunarekin sinatuko den kontratuan jasoko diren baldintzekin eta itunekin bat etorritz.
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen arabera (**“SPKL”**). Plegu honen klausuletan adierazten diren gaiei dagokienez, soil-soilik.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren arabera, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araubide Orokorra onartzen duena (aurrerantzean **“HAKLEO”**), aurreko puntuan azaldutako gaiei dagokienez.
- Zuzenbide Pribatuaren arauak aplikagarriak izango dira kontratuaren interpretazio, ondorio, betetze eta amaierari doazkien gaiak ebazteko.

#### 1.2. Lanak egiten arituko diren langileei dagokienez, enpresaburu kontratatzaileek bete beharko dituzte indarrean dagoen lan eta gizarte legeria.

#### 1.3. Kontratuaren edozein alderditako ezjakintasunak edo bertan bildutako dokumentuak eta eranskinak edo itundutakoa gauzatzean zerikusia izan dezakeen Administrazioak xedatutako arau, plegu eta aginduen gaineko ezjakintasunak ez du kontratista edo enpresaburua salbuetsiko kontratua betetzeko obligaziotik.

### 2. KONTRATUAREN HELBURUA

Eguzki instalazio fotovoltaiko bat hornitu, jarri eta abiaraztea, giltza eskuan erakoa, eta haren mantentze prebentiboa hiru (3) urteko eperako kontratatzea, Plegu honen Karatularen **“A” ATALEAN** adierazia.

Hori guztia baldintza teknikoaren arabera, Zehaztapen Teknikoen Txostenean adierazten dena. Plegu honetan jasoko dena, I. eranskina, eta betetzeko eska daitezke. Beraz, aipatutako proiektua kontratuan sartuko da eta alde guztiek bete beharko dute.

### 3. JARRIKO DEN Wp BAKOITZAREN ETA MANTENTZEAREN GEHIENKO PREZIOA, AURREIKUSITAKO BALIOA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

- a) Jarriko den Wp bakoitzaren prezioa Plegu honen karatulako **“C” ATALEAN** adierazitako zenbatekoa izango da.

Urteko mantentze prebentiboaren gehieneko prezioa, hiru (3) urteko aldirako, Plegu honen karatulako **“C” ATALEAN** adierazitako zenbatekoa izango da.

- b) Aurreikusitako balioa kalkulatzeko, SPKLen 76. artikulua xedatutakoa kontuan hartu da, BEZa gabe.

- c) Kontratuaren prezioa esleipenaren ondorioz aterako dena izango da, eta diru-sail independente gisa sartuko du BEZa.

Kontratuaren prezioan gainerako zergak, tasak eta era guztietako kanon aplikagarriak sartuta daudela ulertuko da, bai eta Plegu honetan bildutako betebeharrak betetzeak kontratistari ekarri ahal dizkion gastu guztiak ere (gastu orokorrak, finantzarioak, onurak, aseguruak, garraioa eta joan-etorriak, berarentzat lan egiten duen pertsonal teknikoaren ordainsariak, bisak, etab.).



Enpresa esleipendunak ordainduko ditu gainerako gastuak, kontratuan azaltzen diren lanak behar bezala egiteko, eta beraz, SOLOGOENek ez ditu ordainduko, I. eranskinean ageri den Zehaztapen Teknikoen Txostenaren arabera.

#### 4. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Karatularen "I" **ATALEAN** zehazten dena beteko da.

#### 5. GAUZATZEKO EPEA

5.1. Gauzatzeko epea Plegu honen Karatularen "J" **ATALEAN** adierazitakoa izango da.

Ezarrirako epeak betetzeko behar diren aldian aldiko epeak eskaintzan ezarriko dira edo SOLOGOENek lan programan onartuko dituenak izango dira.

5.2. Zehaztapen Teknikoen Txostenean lanak egiteko epeak laburtzen edo jardueren ordenamendurako zatikako epeak ezarriz gero, ezinbestean bete beharko lirateke, horrela eskaintzen edo ezartzen badira, hurrenez hurren.

5.3. Karatularen "Q" **ATALEAN** hala aurreikusten baldin bada, kontratua amaitutakoan, alde guztien oniritziarekin, kontratua luza daiteke. Luzatzekotan, epea ez litzateke karatularen "J" **ATALEAN** aurreikusitakoa baino luzeagoa izango.

#### 6. ADJUDIKATZEKO ERA

6.1 SOLOGOENek kontratatzekeo dituen barne-jarraibideak edo arauak aplikatuko zaizkio kontratu honi esleitzeko orduan.

Kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko da, eta esleipena honako fase hauei jarraituz egingo da:

(i) lehen fasean ("*Eskaintzen aurkezpena*"), interesatutako lizitatzailleek dokumentazio orokorra (A gutun-azala) eskaintza ekonomikoak (B gutun-azala) eta teknikoak (C gutun-azala) aurkeztu ahal izango dituzte;

(ii) bigarren fasean ("*Kontrartistaren hautaketa*") lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzen aztertu ondoren, SOLOGOENek kontratua formalizatzeko lizitatzaillea hautatuko du; eta

(iii) hirugarren fasean ("*Formalizazioa*"), SOLOGOENek eta hautatutako lizitatzailleak kontratua sinatuko dute.

6.2 SOLOGOENek eta kontratistak men egingo diote informazioaren konfidentziasuna babesteko obligazioari, KABLren 6.(d) atalean ezarritako moduan.

6.3 Kontratazio-organoa "B" **ATALEAN** azaldutakoa izango da.

6.4 Kontratazio-organoari laguntzeko, kontratazio-mahaia edo organo baliokideren bat era daiteke, eta hauxe arduratuko da parte-hartze eskaerak kalifikatu eta eskaintzak baloratzeaz.



## 7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

- 7.1 Proposamenak aurkezteko epea 2011ko maiatzaren 2ko 12:00ak arte izango da.
- 7.2 Proposamenak honako helbide honetara bidaliko dira: Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua. 48011 Bilbo.
- 7.3 Lizitatuzaileak postaz bidaltzen badu eskaintza, bidalketa posta-bulegoan zer egunetan egin zuen kreditatu beharko du, eta kontratazio-organoari jakinarazi beharko dio, egun bertan, eskaintza bidali duela. Ez badira bi baldintza horiek betetzen edo bidali izanaren jakinarazpena baldintza honetan adierazitako gehienezko epea igarota egiten bada, ez da eskaintza onartuko.
- 7.4 Espainiako nahiz atzerriko pertsona fisiko nahiz juridikoei aurkez ditzakete proposamenak, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa kreditatzen badute. Halaber, ezaugarri hori kredita dezakete zerbitzu-enpresatzat sailkatuta daudela egiaztatzen badute, Eusko Jaurlaritzak edo Estatuko administrazio-kontratueterako kontsultabatzordeak emandako ebazpen bidez. Ildo horretatik, karatulako **"N" ATALA** bete behar dute proposamen-egileek.
- 7.5 Proposamenak aurkez ditzakete, halaber, enpresari-taldeek, aldi baterako elkarteak osatzen badituzte, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 48. artikulua araututako moduan. Enpresa-taldeko enpresariak beren jardute-gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala kreditatu behar dute agiri honetako baldintzek xedatu moduan, eta, horrez gain, agiri pribatu batean adierazi beharko dituzte beren izenak eta egoera profesionala, zer-nolako partaidetza duten elkartean eta, kontratua indarrean den bitartean, zer pertsona edo entitatek ordezkaturiko dituen, ordezkapen-ahalmen osoz, SOLOGOENen aurrean. Enpresari horiek guztiek aldi-baterako enpresa-elkarte gisa eratzeko konpromisoa hartu beharko dute, HAKLEOko 24. artikulua xedatutako moduan. Enpresa-elkarteko kide diren enpresetako ordezkari guztiek izenpetu behar dute adierazitako agiria.

Parte hartzeko zerbitzu-enpresa izatea eskatuko balitz, ezinbestekoa izango da, sailkapenak metatu ahal izateko (HAKLEOko 52. artikulua), aldi baterako elkarteko enpresa guztiek izatea beren esku zerbitzu-enpresen sailkapena.

- 7.6 Lizitatuzaileen proposamenetan adierazten diren lizitazio-tipoak, haiek kontratuaren esleipenerako zenbateko zehatz eta jakinetan adierazten diren heinean, bere baitan jasoko dituzte, indarreko araubideari jarraituz, haiei aplikatzekoak diren zerga guztiak. Horren salbuespena BEZa izango da, hura aparteko kontu-sailtzat jasoko baita.
- 7.7 Interesatuak, hala nahiko balute, intereseko dokumentazioa azter dezakete, SOLOGOENen kontratatzailearen eskakizunean edo profilean lizitazio hau argitaratzean adierazten den lekuan.
- 7.8 Lizitatuzaileek ezingo dute proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzen dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako karatulako **"M" ATALEKO** eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte.

Lizitatuzaileek ezingo dute beste enpresa batzuekin proposamenik izenpetu,





baldin eta aurrez banakako enpresari gisa proposamenik egin badute (xedapen horren salbuespen bakarra izango da lote bat baino gehiago izatea eta proposamenak lote bat baino gehiagorako aurkeztea). Printzipio hori urratuz gero, ez dira onartuko enpresariak egindako proposamen guztiak, eta, ildo horretatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 129.3 artikulua arautzen duena beteko da.

Adierazitakoa betetzekoa izango bada ere, lizitatuzaileek aukera izango dute, kontratuak lote bat baino gehiago baditu, bai kontratu-xede osorako eskaintza bat egiteko (eskaintza hori banakatu egingo da lote bakoitzerako) edo lote bat edo batzuetarako eskaintzak egiteko.

- 7.9 Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz idatzita aurkeztu behar da. Atzerriko enpresek hizkuntza horietakoren batera itzulita aurkeztu behar dute dokumentazioa.
- 7.10 Eskaintzarik eginez gero, enpresariak baldintzarik gabe onartuko dituzte baldintza-orri edo Plegu honetako klausula guztiak, eta eskaintza horri ardurapeko adierazpen bat erantsiko diete, SOLOGOENekin kontratatzeko baldintza guztiak betetzen dituztela esanez.
- 7.11 Izaera konfidentziala. Beharrezkotzat jotzen baldin bada, enpresa lizitatuzaileak, sekretu teknikoak edo komertzialak direla eta, izaera konfidentzialtzat hartzen dituen informazioak eta alderdiak adierazi ahal izango ditu, VIII. eranskinean agertzen den ereduaren arabera, eta hori egiteko arrazoiak azalduko ditu. Nolanahi ere, eskaintza ekonomikoak ez du izaera hori.
- 7.12 Lehiaketatik kanpo geratuko dira, SOLOGOENek behar bezala arrazoitu eta gero, honako egoera honetan leudekeen proposamenak:
- Proposamenak epez kanpo aurkeztea.
  - Eskatutako gaitasun profesional edo enpresariala ez aurkeztea.
  - Plegu honetan eskatzen den kaudimen ekonomiko, finantzario, teknika edo profesionala ez aurkeztea.
  - Proposamen ekonomiko batzuk aurkeztea, bakarka edo aldi baterako beste enpresa lizitatuzaile batzuekin batera.
  - Plegu honetan edo zehaztapen teknikoen pleguan eskatzen diren baldintzak ez betetzea.
  - SPKLe eskatzen dituen baldintzak ez betetzea.

## 8 PROPOSAMENEN EDUKIA

- 8.1 Lizitatuzaileek hiru gutun-azal aurkeztuko dituzte, eta, horietan guztietan, datu hauek adieraziko dituzte: lizitatuzailearen izen-abizenak edo enpresaren izena; gaia adierazteko, espedientearen erreferentzia-zenbakia adieraziko dute; eta, kontratu-xede adierazteko, baldintza-orri honetako karatularen "**A**" **ATALEAN** adierazitakoa zehaztuko dute.
- 8.2 Hiru gutun-azalak helbide honetara bidaliko dira: Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36 - 1. solairua, 48011 BILBAO. Baldintza-orri honetako karatularen "**E**" **ATALEAN** adierazitako epean bidali behar dute, eta/edo, hala adierazten bada, lizitazio-iragarkian zehaztutako epean.

"Gaiari" dagokion epigrafean, hau adieraziko da gutun-azal bakoitzean:



- **“A” gutun-azala:** “Lizitazio-espedientearen zenbakia: dokumentazio orokorra. Enpresaburuen kaudimena eta gaitasuna”
  - **“B” gutun-azala:** “Lizitazio-espedientearen zenbakia: Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideen dokumentazioa”
  - **“C” gutun-azala:** “Lizitazio-espedientearen zenbakia: Formula bidez ebaluatu ahal diren irizpideen dokumentazioa”
- 8.3 Baldintza-orri honetako 8.5 atalean zehaztutako agiriak jasoko ditu “A” gutun-azalak, “B” gutun-azalak 8.6 atalean zehaztutakoa jasoko du eta, azkenik, 8.7 atalean adierazitako dokumentazioa eramango du “C” gutun-azalak.
- 8.4 Proposamenak entregatuz gero, lehiatzaileek onartu egin beharko dute lizitazioa, baldin eta esleipendun suertatzen badira. Proposamena aurkeztu ondoren, ezingo da hura erretiratu, baldin eta SOLOGOENek uste badu badagoela horretarako arrazoi justifikaturik.
- 8.5 **A” gutun-azala: Dokumentazio administratiboa**
- EEEKo sarrera-erregistroan aurkeztuko da dokumentazio hori, gutun azal itxi baten barruan. Gutun-azalean, espediente-zenbakia adieraziko da, eta, horrez gain, baldintza-orri honen karatulako **“A” ATALEAN** adierazitako deskribapena idatziko da, “Dokumentazio administratiboa” dela iragarri.
  - Dokumentazio administratiboaren atalean, Eusko Jaurlaritzako kontratisten erregistroan erregistratuta dauden lizitatzailerik eta Estatuko lizitatzailerik eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialean erregistratuta daudenek nahikoa izango dute erregistratuta izatearen ziurtagiriaren kopia aurkeztea. Horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, erregistroan adierazitako datuak baliozkoak direla eta indarrean daudela bermatuz, VII. eranskinarekin batera.
- Adierazitako erregistroetan erregistratuta ez dauden enpresariak, sarrera-erregistroa agertu, eta agiri hauek erantsi beharko dituzte “A” gutun-azalean:
- a. Proposamena aurkezten duen pertsonaren nortasun agiri nazionala edo haren baliokide den agiri fede-emailea, eta beste pertsonaren baten izenean agertzen edo proposamenak izenpetzen dituzten pertsonak, berriazko ahalorde askietsia ere aurkeztu behar dute.
  - b. Pertsona juridikoak diren enpresarien jarduteko gaitasuna kreditatzeko, haien eraketa-eskritura edo aldaketakoa aurkeztu behar dute. Eskritura horrek merkataritza-erregistroan inskribatuta egon beharko du, baldin eta hari aplikagarri zaion merkataritza-legediak hala eskatzen badu. Hala ez balitz, jarduteko gaitasuna kreditatzeko, eraketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo sorrera-egintza aurkeztu beharko dituzte. Bertan, jarduera arautzeko arauak agertu beharko dira, eta behar bezala inskribatuta egon beharko dira kasuan kasuko erregistro publikoan.
  - c. Jarduteko gaitasuna kreditatzeko, kontratatzeko adina ahalmen ematen duen ahalorde askietsia aurkeztu beharko dute, aurreko atalean xedatutakoa betez.
  - d. Ardurapeko adierazpena, ahalmendutako pertsona batek izenpetua, eta behar bezala adieraziko duena enpresariak ez duela Sektore Publikoko



## C.H. SOLOGOEN

Kontratuen Legeko 49.1. artikuluan araututako debeku, ezgaitasun edo bateraezintasuneko kausarik betetzen. Horretarako, Plegu honetako II. eranskina bete eta sinatuko da.

Ardurapeko adierazpen horretan, berariaz azaldu beharko dute egunean betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak. Horrez gain, hautatutako enpresaburuak alderdi horiek betetzen dituela kreditatu beharko du kontratua formalizatu baino lehen.

e. VII. eranskina behar bezala betetzea.

- Baldintza-orriko karatulako **"G" ATALEAN** hala jasotzen bada, abal bat eratu izanaren agiria aurkeztu beharko da. Behin-behineko bermea izango da abal hori, eta atal horretan adierazitako zenbatekoa izan behar du. Hautatutako enpresariak kontratua formalizatzen duenean, amaitu egingo da behin-behineko bermearen indarraldia, eta itzuli egingo zaie hura hautatuak izan ez diren lizitatzailerei.

-Lizitatzailerean kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala kreditatzeko, kaudimen hori dutela egiaztatzen duten honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

o Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa

1. Lizitatzailerean ahalmen ekonomikoaz finantza-erakundeen txostena, edo, haren ezean, arrisku profesionalen kalte-ordainerako aseguru bat izatearen frogagiria.
2. Urteko kontuak, merkataritza-erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutakoak. Kontuak erregistro ofizialetan aurkezteko obligaziorik ez duten enpresariak, bestalde, kontabilitate-liburuak aurkez ditzakete, behar bezala legeztatuta.
3. Negozioen bolumenari buruzko adierazpena, eta zehazki, kontratu honen helburua denari lotutako jardueren inguruko negozio bolumena, eskuragarri duen azken ekitaldiari dagokionez.

o Kaudimen teknikoa edo profesionala

Lizitatzailerek kontratu honen inguruko lanekiko esperientzia frogatu beharko dute, honako bide hauen bitartez:

1. Azken hiru (3) urtean kontratu honen antzeko lan eta proiektu burutuen deskribapena; baita horien zenbatekoa, datak eta izandako onuradunak ere.

Lehiaketa honetan parte hartzeko, azken hiru (3) urtean eskatzen den antzeko hamar (10) eguzki-instalazio fotovoltaiko, gutxienez, egin behar izan dute.

2. Lizitatzailerek egiaztatu beharko du dituen profesionalen titulazio homologatu eta egokia dela Espainian aritzeko; betiere Plegu honetan eskatzen diren lanak egiteko behar den titulazioei dagokienez. Horretarako, langileen batez bestekoaren zerrenda erantsiko du, azken hiru (3) urteko titulazioak jasoko dituen.

Behar bezala arrazoitutako kausak direla medio, enpresariak ezingo balitu eskatutako erreferentziak eman, bestelako dokumentazioa balia dezake bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa kreditatzeko, baldin eta SOLOGOENek egokitzen jotzen



badu egiaztapen-bide hori.

### Kaudimena kanpo-baliabideekin integratzea

Kontratu hau egiteko nahiko kaudimena duela egiaztatzeari begira, kontratista beste erakunde batzuen kaudimen eta bitartezkoek balia daiteke, erakunde horiekin izango dituen harreman juridikoak edozein direla, betiere kontratua gauzatzeko erabiliko direla egiaztatuz.

Kontratua gauzatu ahal izateko kontratistak bitarteko horiek izango dituela egiaztatze aldera, eta azpikontratistek egingo dituzten lanen zatiek ez dutela kontratuaren prezioaren %50 baino gehiago izango, azpikontratazioari buruzko konpromisoa erantsi beharko da, honako baldintza hauekin:

- a) Hasieran dokumentu pribatuan aurkeztu ahal izango da. Hala ere, enpresa behin-behineko esleipenduna izango balitz, eskritura publikoan dokumentatuko litzateke.
- b) Azpikontratatzeko asmoa duen kontratuaren zatia eta kontratuaren prezioaren aldean zer ehuneko den adierazi beharko dira.
- c) Kontratuaren esleipenduna izanez gero, azpikontratatu dituen enpresen eskura behar beste baliabide jarriko ditu kontratuaren zati hori egiteko.
- d) Etorkizuneko azpikontrata izenaren bidez identifikatuko da, edo enpresa profilaren bidez. Geroago, esleipendunak beste enpresa batzuk azpikontratatu nahi baditu, SPKLen 210.2 artikulua a) eta c) letretan xedatutakoa beteko ditu.

-Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko enpresek eta gainerako enpresa atzeritarrek horrela kreditatu behar dute beren jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala:

#### 1. Gaitasuna

- Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko herrialdeetako enpresek edo Europako Eremu Ekonomikoari buruzko Ituna izenpetu duten herrialdeetako enpresek nahikoa izango dute erregistroan inskribatuta daudela kreditatzea edo HAKLEOko I. eranskinean adierazten diren ziurtagiriak aurkeztea.
- Gainerako enpresa atzeritarrek,
  - Haien herrialdeek Espainian duten misio diplomatiko iraunkorrak edo kontsul-etxeak emandako txostenak aurkeztu behar dute. Txosten horrek behar bezala kreditatu beharko du, enpresak hala frogatu ondoren, lanbidezko, merkataritzako edo dagokion alorreko toki-erregistroak inskribatuta daudela, edo, horretarako obligaziorik ez balute, ohikotasunez lan egiten dutela, tokiko lan-eremuan, kontratuaren xedeari dagokion jarduera-esparruan.
  - Horrez gain, enpresaren jatorriko herrialdeak Espainian duen Misio Diplomatiko Iraunkorrak edo Ekonomia Ministerioko Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Orokorrak emandako txosten bat aurkeztu behar dute. Txosten horretan, dagokion herrialdeak Merkataritzako Mundu Erakundeak kontratazio publikoari buruz adostutako ituna izenpetu duela adierazi behar da.
  - Enpresak Espainian sukurtsal bat irekia duela kreditatzen duten agiriak, eta, horietan, zehaztuko da zer ahaldun edo ordezkari dituzten izendatuta enpresa-eragiketetarako, eta merkataritza-erregistroan inskribatuta daudela.

#### 2. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, teknikoa edo profesionala

Klausula honetako aurreko ataletan adierazitako moduan kreditatuko da. Europar Batasunekoak ez diren enpresa atzeritarrek kreditatu egin behar dute, baldintza hori Espainiako enpreseiei eskatzen bazaie, sailkatuta daudela, baldintza-orri



honetako Karatularen "N" **ATALEAN** xedatutako moduan.

-Lizitazioan parte hartzeko, zenbait enpresarik aldi baterako enpresa-elkartea eratzen badute, enpresa bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan adierazitakoaren arabera, eta, kasuan betetzekoa bada, SPKLeko 56.5 artikulua kontratisten sailkapenari buruz arautzen duena aplikatuko zaie.

Lizitazioa enpresa-elkarteari esleitzen bazaio, kontratazio-organoari kreditatu behar zaio enpresa-elkartea eskritura publiko batean eratu dela, eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da. Ordezkari horrek nahikoa ahalmen izan behar du kontratutik eratorritako eskubideak erabili eta obligazioak betetzeko, harik eta kontratua amaitzen den arte. Enpresa-elkarteen iraupenak bat etorri behar du kontratuaren iraupenarekin, harik eta azken hori amaitzen den arte.

Enpresen langilerian ehuneko bikoia edo handiagoa bada ezintasunak dituzten langileen ehunekoa, berariaz emandako ziurtagiri bidez edo agiri egokiz frogatu beharko da baldintza hori betetzen dela, baldin eta enpresek SPKLeko seigarren xedapen gehigarriak eta Osasun eta Kontsumoko Ministerioak 2001eko abenduaren 17an emandako Aginduak xedatutakoaz baliatu nahi badute.

#### **8.6 "B" gutun-azala: Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideen dokumentazioa**

Lizitazileak honako dokumentazio hau aurkeztuko du, adierazten den hurrenkeran:

- a. Memoria deskriptiboa eta lan metodologia: Egingo diren lanen deskribapena. Horren barruan izango dira jarriko diren ekipo nagusien ezaugarriak (panelak, alderantzikagailuak...). Horretaz gain, jarraituko den lan metodologia ere aurkeztuko da, bai SOLOGOENen aurrean izango dena, bai lanak gauzatzeko erabiliko dena.
- b. Kontratua gauzatzeko arituko den lan taldea: Plegu teknikoan azaltzen diren lan guztiak egiteko esperientzia egiaztatua eduki beharko du lan taldeak. Esperientzia hori frogatzeko, lan taldea osatzen duten kide bakoitzaren curriculum vitae aurkeztuko da.
- c. Bitarteko materialak: Enpresa eskaintzaileak egitasmoa gauzatzeko erabiliko dituen bitarteko materialak deskribatuko dira.
- d. Proposatzen diren hobekuntzak: Dokumentu honetan zehazten diren baldintzei egindako hobekuntzak adieraziko dira.
- e. Instalazioaren mantentze zentroa: Mantentzeaz arduratuko den enpresa identifikatuko da (l. eranskinaren taula), azken honen aldetik konpromisoa hartuta mantentzea egiteko dokumentua erantsiz, baldin eta lizitazileak, azkenean, behin betiko esleipenduna bada.
- f. Planifikazioa: Lizitazileak planifikazio eta lan egutegi zehatza aurkeztuko ditu. Bertan, besteak beste, eskaintzan azaltzen diren mugari nagusien hasiera eta amaieraz gain, gauzatzeko bideak ere agertuko dira. Horrekin batera, jardueren zehaztapena eta beste lan batzuekiko loturak jasoko dira planifikazioan.



Kontuan hartu beharko da klimatologiaren eragina. Hori guztia kronograma batez lagunduta joango da. Aintzat hartuko da proposamenaren koherentzia.

- g. Bermea: Zenbait elementuren bermeak identifikatuko dira; adibidez, instalazioarena, bere osotasunean, eta eskulanarena, alderantzikagailuena, moduluena. Edozein kasutan, Plegu honen **K Atalean** adierazten diren gutxieneko epeak aintzakotzat hartuko dira. Era berean, honako atal hauek zehaztuko dira: matxurarik izanez gero, (plantaren funtzionamenduari eragiten dionean eta eragiten ez dionean), aurre egiteko epea, sortu daitezkeen gastuak adieraziz, eta horiek ordaintzea nori dagokion, lizitatuileari edo SOLOGOENi.

Halaber, lizitatuileek, laburpen gisa, goraxeago aipatutako dokumentazioarekin batera, V. eranskina bete beharko dute.

Gutun-azal honetan ez da sartuko proposamen ekonomikoa, ezta formula bidez kuantifikatu ahal den beste dokumentazio bat ere.

Kontratu honen lan zati batzuk gauzatzeari begira, lizitatuileek lan horiek azpikontratatzeko asmorik badute, kontratuaren zein zatiri dagokion azpikontratazio hori adierazi beharko dute. Horrekin batera, azpikontratazio horren balioa edo zenbatekoa eta azpikontratatzen izena edo profil profesionala.

Azpikontratatzen geroago egin dezaketen edozein aldaketa, alde aurretik SOLOGOENen baimenaz egingo da, eta Plegu honen 24. klausula edo atalean xedatutakoa beteko da.

Azken batean, Plegu honen karatularen "0" **ATALEAN** zehazten den ildotik, formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak ebaluatzeko dokumentazio guztia aurkeztu beharko da. Horrez gain, lanak hobeto egiteko, bestelako informazio gehigarri edo egitasmoari egiten zaizkion hobekuntzak ere aurkez daitezke.

Adierazitako agiri horietakoren bat faltako balitz edo ez badira zorrotz betetzen aurreko ataletan adierazitako alderdiak, eskaintza bazter uzteko aukera izango da.

#### **8.7 "C" gutun-azala: Formula matematiko bidez ebaluagarriak diren irizpideen dokumentazioa**

(C) gutun-azalak proposamen ekonomikoa eta mantentzearena baino ez ditu jasoko. Hori guztia, lizitatuileak edo haren ordezkariak sinatuta eta sail bakoitzerako. Horrekin batera, VI. eranskinean agertzen den ereduaren arabera. Horrekin batera, proposamen ekonomikoa eta mantentzearen ezaugarri eta kontzeptuei lotutako deskribapen zehatza azalduko da.

Proposamen ekonomikoa bide mekanizatuak erabiliz idatziko da eta izenpetuta aurkeztuko da; horiek horrela, ez dira onartuko gabeziak edo akatsak dituzten proposamenak, ezta eskaintzaren edukia zein den argitasunez jakitea eragotz dezaketen marraketak dituztenak. Alderik balego zenbakiz eta idatziz jasotako zenbatekoen artean, azken hori gailenduko da.

Lizitatuileek ezingo dute, SPKLeko 129. eta 131. artikuluei jarraiki, proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzat irizten dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako Karatularen "M" **ATALEKO** eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte. Bariante bat baino gehiago aurkeztuz gero, bariante bakoitzari dagokion proposamen ekonomikoa aurkeztu behar du lizitatuileak.



## 9 PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

- 9.1 Proposamenak aurkezteko epea amaituta, lizitatuzaileek aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko da.
- 9.2 SPKLen 144.1 artikulua xedatutakoa ez da aplikagarria izango, izaera armonizatua duten kontratuei lotutako proposamenen irekieraz.
- 9.3 Eskatutako dokumentazio administratiboa faltako balitz edo aurkeztutako agiriak akastunak badira, ez da onartuko lizitatuzaileak egindako proposamena. Proposamenak akats materialak balitu, HAKLEOko 81. artikulua araututakoa beteko da, eta hiru (3) egun balioduneko epea emango da haien zuzentzeko. Telefonoa erabiliko da izapide honen berri emateko; zehazki, lizitatuzaileak eskaintzan adierazitako telefono-zenbakia.
- 9.4 Baztertu egingo dira gaitasuna eta/edo kaudimen ekonomiko eta finantzario nahiz tekniko edo profesional baldintza-orri honetan adierazitako moduan kreditatu ez duten lizitatuzaileak, bai eta, kasu horretan badaude, zerbitzu-erpresen sailkapena kreditatu ez dutenak ere.

## 10 ESKAINTZA HAUTATZEKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

- 10.1 Esleipenari ekin aurretik, SOLOGOENek eskubidea izango du kontratua bertan behera uzteko, espedientean behar bezala justifikatuta, edo hautatzeko prozedurari ez ekitea, kontratua prestatzeko araudietan edota esleipena bideratzeko prozeduran hauste edo akatsen bat gertatuz gero.

SOLOGOENek kontratua deuseztatu edo bertan behera utziz gero, lizitatuzaileei 100 euroko kantitatea emango die.

- 10.2 Lehiaketa esleitu gabe uzten ez badu, esleipena abantailatsuena den proposamenari egiteko aukera izango du SOLOGOENek, eta, horretarako, ez du, ezinbestean, haren balio ekonomikoari erreparatu behar.
- 10.3 Baldintza-orriaren karatulako **“O” ATALEAN** adierazitako oinarriko balorazio-irizpideak baliatuko dira eskaintzak baloratzeko.
- 10.4 Irizpide gehigarri gisa, baldin eta horrela ezarri bada, eta proposamen ekonomikoek dagokienez, positibotzat joko dira lanak egiteko eta epeak betetzeko bermeak aurkezten badira.
- 10.5 Ildo horretatik, proposamen ekonomikoa ez da izango, berez, erabakigarria, baina esleipen-erabakiaren joera izango da, lehiaketako eskaintzei erreparatu ondoren, egin beharreko lanen arazoizko baliora gehien gerturatzen diren eskaintzak hautatzea.
- 10.6 Kontratazio mahaiak proposatutako eskaintzak balio ezohikoak edo gehiegizkoak izango balitu eta kontratazio organoak, enpresak egindako justifikazioa aintzat hartuta eta eskatutako txostenei jarraiki, eskaintza ezin izango litzatekeela bete, balio ezohikoak edo gehiegizkoak direla eta, behin-behineko esleipena egingo luke bigarren proposamen ekonomiko egokiena, sailkatu diren hurrenkera kontuan hartuz; betiere, Erakunde Kontratatzaileak azken proposamen hori modu



onean beteko dela uste badu eta inolako balio ezohiko edo gehiegizkorik ez badu.

Proposamen batek balio ezohiko edo gehiegizkoak izango ditu honako baldintza hauek betetzen baditu: eskaintzen duen Wp bakoitzaren prezioa onartutako proposamenen batez bestekoaren aldean ehuneko hogeita (% 20) gutxiago denean.

Proposamen batek balio ezohiko edo gehiegizkoak dituela adierazi baino lehen, harekin zerikusia duten pertsonen informazioa eskatu eta eman beharko litzaieke. Gainera, dagokion zerbitzu teknikoaren aholkularitza emango zaio eta kontratazio mahaiak txostena egingo luke.

- 10.7 Esleipenerako oinarri diren irizpide objektiboak aztertu ondoren, bi lizitatzaileraren edo gehiagoren artean berdinketa balitz, enpresa hau aukeratuko da: kaudimen teknikoaren kreditatzeko unean, lan-plantillan ezintasunak dituzten langileen kopurua langile guztien ehuneko bikoa edo handiagoa duena.

## **11 ENPRESABURU ESLEIPENDUNA AUKERATZEA**

- 11.1 Eskaintzak baloratu eta enpresaburu esleipenduna hautatzeko gehienezko epea hilabetekoa (1) izango da, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera.

Epe hori igaro ondoren, erabakia jakinarazi ez bada, lizitatzailleek, egoki irizten badute, beren proposamenak erretiratzeko asmoa dutela jakinaraz dezakete.

- 11.2 Formalizazio-unean perfektionatu da kontratua, baina formalizazio-egintza burutu baino lehen, zenbait agiri aurkeztu behar dizkio SOLOGOENi hautatutako enpresaburuak. Horretarako, hamar (10) egun balioduneko epea izango du gehienez, agiri horiek eskatzen zaizkion unetik aurrera. Hauek dira agiriok:

### a) Zerga-betebeharrak

- Ziurtagiri positiboa, Zerga Administrazio Estatuko Agentziak emana, zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena, edo hori aurkezteko betebeharrak ez duen ardurapeko adierazpena.

Ziurtagiri positiboa, foru-aldundiek emandakoa, administrazioarekin zerga-betebeharrei lotutako zorrik ez duela egiaztatzen duena, edo hertsadura bidea erabiltzeko ez dagokien zergadunen kasuan, borondatezko epean ordaindu ez diren zorren inguruan.

### b) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak

Ziurtagiri positiboa, Gizarte Segurantzaren Lurralde Altxortegiak emandakoa, Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena, edo hori aurkezteko betebeharrak ez duen ardurapeko adierazpena.

### c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga

Jarduera ekonomikoen gaineko zergako alta-agiria edo zerga horretako azken erreziboa aurkeztu behar du, eta, horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztuko du (IV. ERANSKINA) zerga horretan baxerik ez duela hartu azalduz. Aurkeztu behar ez baldin badu, hori egiaztatzen duen agiria aurkeztuko da.





d) Aseguru enpresak egiaztatuta, aseguru guztien egokitzapena, estaldura eta indarrean dauden dokumentuak, Plegu honen 22. atalean jasotzen diren baldintzen arabera.

e) Behin betiko bermea ezarri izanaren egiaztagiria, karatulan "H" atalean hala erabaki baldin bada. Bermea eratzeko edo ezartzeko prozedura SPKLeke 84. artikulua xedatutakoari jarraiki egingo da.

f) Beste dokumentu batzuk. Kontratatzeko gai den egiaztatzen duen gainerako dokumentazioa, edo kontratua aurrera eramateko konprometitutako bitartekoak egiaztatzen dituzten dokumentuak.

Plegu honetako Karatularen "F" Atalean azaltzen da non aurkeztu behar diren dokumentu horiek.

Aipatutako epean behar bezala aurkeztu ezean, lizitatuzaileak eskaintza bazter utzi duela ulertuko da. Hori horrela, hurrengo lizitatuzaileari eskatuko zaio dagokion dokumentazioa, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkerari jarraiki.

11.3 SOLOGOENek bost (5) egun baliouduneko epearen barruan esleituko du kontratua, dokumentazioa jasotzen den unetik kontatzen hasita. Esleipen hori justifikatu eta motibatu egingo da eta lizitatuzaile guztiei haren berri emango zaie, jakinarazpen baten bidez (faxes/posta/posta elektronikoa) eta Kontratatuzailearen Profileen argitaratuz.

## **12 KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA**

12.1 SOLOGOENek bere gain hartzen du eskaintzaren edukia egiaztatzeko gaitasuna, bai eta kontratuaren formalizazioaren aurretiko dokumentazio administratiboa egiaztatzekoa ere.

12.2 Kontratuaren formalizazioa enpresariari bere eskaintza onartua izan dela jakinarazi ondorengo egunean hasiko da, eta hamabost (15) egun naturaleko epean egingo da.

12.3 Kontratuaren formalizazioaren bitartez, SOLOGOENek kontratuzko onarpena adierazten du eta modu horretara, kontratua perfektionatzen da.

12.4 Kontratuak bere baitan bilduko ditu SOLOGOENek kontratatzeke dituen barne arauan jasotako aipamenak.

12.5 Kontratua ezin izango da formalizatu enpresariak baldintza-orri honetan zehazten diren dokumentu guztiak aurkezten ez baditu. Kontratua enpresariari egotz dakizkion arrazoiengatik formalizatuko ezin balitz, SOLOGOENek behin-behineko bermea konfiskatzeko eskubidea izango du, horrelakorik izango balitz. Behin-behineko bermerik ez balego, enpresariak SOLOGOENi kalte-ordaina eman beharko dio. Kalte-ordaina gehienez ere kontratuaren aurrekontuaren ehuneko hirukoa izango da.

12.6 Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da, eta formalizazio horretatik eratorritako gastu eta zerga guztiak hautatutako enpresariak ordaindu beharko ditu.

12.7 Kontratua enpresa-talde bati esleituz gero, enpresa horiek talde horren eraketa frogatu beharko dute eskritura publiko baten bitartez eta kontratuaren



formalizaziorako zehaztutako epean. Enpresa-taldeari emandako I.F.Z. ere aurkeztu beharko dute.

12.8 Esleipendunak isilean gorde beharko ditu kontratua dela eta ezagutuko dituen eta kontratuarekin zerikusia duten ezkutuko datu eta aurrekari pribatuak.

### **13 KONTRATUA GAUZATZEA**

**a)** Kontratua klausula eta pleguetan ezarritakoari atxikita beteko da, eta kontratazio-organoak, honen ordezkariak edo kontratuaren arduradunak kontratistaren esku utz ditzakeen interpretazio jarraibideen arabera.

**b)** Kontratua kontratistaren arrisku eta zoriaz beteko da.

**c)** Kontratistak bere gain hartuko du garatutako lanen eta burututako eginkizun eta zerbitzuen kalitate teknikoaren ardura, baita SOLOGOENentzat edo hirugarrenentzat kontratua betetzean gerta daitezkeen hutsegite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrekin eragindako ondorioen erantzukizuna ere.

**d)** Kontratua behar bezala betetzeko, kontratistak konpromisoa hartzen du informazio osagarria eta laguntza teknikoa emateko (dokumentuak eta mota guztietako informazioa).

**e)** Lanak egiten diren bitartean, kontratuaren aplikazio zuzenaren eta istripu edo kalteen, pertsonen, materialei eta hirugarrenei gerta dakizkienak, ardura kontratistarena izango da.

**f)** Kontratua indarrean dagoenean eta kontratua amaitu ondoren, kontratista derrigortuta dago isilpeka gordetzera kontratuaren helburuekin zerikusia duten datu eta aurrekariak, bereziki jakinak eta agerikoak ez direnak, baita kontratua bete ahala ezagut ditzakeenak ere.

**g)** SOLOGOENek ez dio ordainduko kontratistari kontratuan zehaztuta ez dagoen ezein lan edo kontratazio-organoak edo kontratuaren arduradunak aldezturik baimendu ez duen ezein lan.

**h)** Kontratua amaitzen denean, SOLOGOENek kontratu honen xedea diren lanak jasotzeko ekitaldi formala egingo du. Une horretatik aurrera, Plegu honetan aurreikusten den bermearen epea jarriko da indarrean.

### **14. KONTRATUAREN ALDAKETA**

**a)** Ezustekoei eta egoera berriei aurre egin ahal izateko SOLOGOENek zerbitzu-kontratua aldatzeko gaitasuna izango du, baina aldaketa horrek ezin izango du hasierako kontratuaren ehuneko hogeita (%20) gainditu.

Kontratistak derrigorrean onartu behar ditu aldaketa horiek. Aldaketek, kasu bakartuetan edo bere osotasunean ehuneko hori gaindituz gero, kontratistak kontratua eten dadin eskatzeko eskubidea du. Kontratuzko aldaketen prezioa bi aldeek zehaztuko dute, bakoitzak bere prezioak ezarri eta horiek negoziatuz.

**b)** Kontratistak ezin izango du inolako aldaketarik egin kontratuaren xedeari dagokionez, aldezturik adostasunez egin ez bada, eta hala badagokio, kontratazio-organoak ezarritako aurrekontuaren gainean.



SOLOGOENen oniritzia edo baimena ez duten aldaketek erantzukizuna ekarriko diote kontratistari, eta horiek eragin ditzakete gastuak kontratistaren kontura joango dira.

### **15 KONTRATUAREN LUZAPENA**

Baldintza-orri honetako Karatulan aurreikusten diren baldintzak betez luza daiteke kontratua.

Aurreikusitako luzapenak gertatuko balira, kontratuaren prezioa hasieran zehaztutakoa izango litzateke, baina, luzapeneko urte bakoitzean berraztertu egingo da eta urteari dagokion KPIren %85 aplikatuz. KPIa Estatistikako Institutu Nazionalak ezarritakoa izango da (SPKLen 78.3 art.).

### **16 PREZIOAREN ORDAINKETA**

Kontratistak SOLOGOENen adostasunarekin burututako eta emandako lanengatik ordainsaria jasotzeko eskubidea izango du, lanei dagozkien fakturak aurkeztuta.

Plegu honetako karatulan adierazten da prezioaren ordainketa nola egingo den.

Inola ere ezingo da ordainketarik egin kontratua formalizatu arte.

Kontratuaren arduradunak emandako berriazko baimena jaso ezean, kontratistak ez du egindako hobekuntzak kobratzeko eskubiderik.

Plegu honetan jasotzen den bezala, SOLOGOENek kontratistari ezarri ahal dion zigor ekonomikotik prezioa kentzeko eskubidea du.

### **17 GUTXIENKO BERMEAREN EPEA**

Gutxieneko berme aldia hiru (3) urtekoa izango da, kontratuaren prestazioa behin betiko jasotzen den egunetik kontatzen hasita.

- a) Berme aldi horretan, adostutako kalitate baldintzak ez betetzearen ondorioz, materialen konponketarik egin behar izanez gero, esleipendunaren ardura izango litzateke.
- b) Aipatutako konponketaren bat egin beharko balitz, berme aldia eten egingo litzateke, konponketa egiten den bitartean.
- c) Esleipendunak bermea betetzen ez badu, SOLOGOENek eskubidea izango du ordaindu gabe dituen zenbatekoak ez ordaintzeko; baita abalak gauzatzeko eta kontratua bertan behera uzteko ere. Gainera, esleipendunak dagokion kalte-ordaina ordaindu beharko dio.

Berme aldia igaro ondoren, eta SOLOGOENek esleipendunari jakinarazi ez badio lanak egitean akats, kalte edota arazorik, kontratua deuseztatuko da eta esleipendunaren ardura izango da; baldin eta agerian ez diren akats edo arazoak ez badira. Horrelakoetan, esleipenduna izango litzateke arduraduna, berme aldia igarota ere.

### **18 BEHIN BETIKO BERMEA**

a) Kontratistak, kontratua indarrean dagoen epe guztian zehar eta lana behin betiko jasotzeko ekitaldi formala arte, behin betiko bermea jarri eta eduki beharko du, lanak behar bezala egingo direla bermatzeari begira, Plegu honetan eta Zehaztapan Teknikoen Txostenean ezartzen diren epe eta baldintzei jarraiki.



Aipatutako behin betiko bermearen zenbatekoa kontratuaren prezioaren %5 izango da (BEZa gabe).

Bermea eratzeko prozedura plegu honetako III. eranskinaren arabera egingo da.

b) Kontratua bertan behera geratuko balitz, eta horren arrazoiak kontratistari egotzi dakizkioke, kontratuan jasotako prestazioak edo kantitateak itzultzeaz gain, SOLOGOENek eskubidea izango du kalte-ordaina jasotzeko, kontratistak hartutako konpromisoak ez betetzeagatik, eta horren ondorioz, ezarritako behin betiko bermea bahituko du.

## **19 EPEAK ETA BERANDUTZEAGATIKO ZIGORRAK**

- a) Kontratista derrigortuta dago kontratua Plegu honetako Karatulan finkatutako epeetan gauzatzera; baita proposamen teknikoarekin batera aurkeztutako lan-plangintzan jasotzen dena ere.
- b) Kontratista edozein epeetan berandutu egin dela jotzeko, ez da beharrezkoa izango SOLOGOENek aldez aurretik ohartarazpenik egitea. Atzerapen horiei dagozkien zigorrak SOLOGOENek ezarriko ditu automatikoki.
- c) Azken epea amaitu eta kontratista berandutu egin bada berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta, SOLOGOENek adostutako azken prezioaren %20ko zigorra ezar diezaioke.

Zigorren zenbatekoak ez du kanpo uzten SOLOGOENek kontratistaren berandutzeagatik sortutako kalte-galerak direla kausa eska dezakeen kalte-ordaina, ez eta SOLOGOENek kontratua suntsiarazteko duen eskubidea ere.

- d) Era honetako zigorrak ezartzeko prozeduran kontratistari alegazioak egiteko aukera eman beharko zaio derrigorrez, kontratuaren arduraduna entzun ondoren.

## **20 KONTRATISTAK KONTRATUA AKATSEZ BETETZEA EDO ZATIKA BETE GABE UZTEA**

SOLOGOENek zehaztuko du kontratistak egindako lana gauzatzeko eta betetze-aldiari begira ezarritako preskripzioekin bat datorren ala ez, eta behar izatekotan, kontratatutako zereginak bete ditzala edota harrera aldiaren igarritako akatsak konpon ditzala eskatuko dio. Zuzenketa horiek egiteko epea hamabost (15) egunekoa izango da gehienez ere.

Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako zereginekin, kontratistari egotz dakizkiokeen akatsak edo hutsegiteak medio, SOLOGOENek lan horiek errefusatu eta ordainketa egitetik salbuetsita geratzeko aukera izango du, eta horrekin batera, kontratua bera indargabetu ahal izango du, eta kontratistari, zigor gisa, adostutako azken prezioaren %20 eskatu ahal dio.

Zigor horien barruan ez daude, kalte-ordain moduan, SOLOGOENek jasotzeko eskubidea izan dezakeen diru kantitatea, kontratistak epeak eta beste ez betetzeagatik sor daitezkeen kalteen ondorioz.



## **21 KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK**

### **21.1 Lan arriskuen prebentzioa**

Esleipendunak bete eta bere ardurapeko langileei betearaziko dizkie lan legeriak arriskuen inguruan xedatutako arau guztiak; baita aplikagarria zaien Lan Ituna, eta bereziki, Lan Arriskuen Prebentzioaz diharduen azaroaren 8ko 31/1995 Legeak dioena bete eta betearaziko du.

### **21.2 Betebehar laborala eta sozialak**

a) Kontratistak, esleitu zaion lana egiteko kontratatzen dituen langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia eta Gizarte Segurantzari, ezinduen integrazio laboralari eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudiak bete behar ditu. Gizarte-formazioarekin zerikusia duten azken araudi horien kasuan, azpikontratatuak –halakorik izanez gero– bere langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia beteko duela ziurtatu behar du kontratistak.

b) Kontratu hau betetzeko aplikagarria diren heinean, kontratistak espresuki adierazi behar du higiene, segurtasun eta ingurumen alorreko araudi eta legeak bete eta betearazteko bitartekoak, gaitasuna eta ezagutza dituela, eta kontratua betetzean horrelako gaien inguruan gerta litezkeen erreklamazioei aurre egiteko konpainiak ez du inolako ardurarik.

c) Kontratistak bere menpeko langile guztiei babesteko ekipo homologatuak eman behar dizkie, kontratuan aurreikusten diren lanen segurtasunak edo arriskuak hala eskatzen badu, aplikagarria izan dakioken lan arriskuak prebenitzeko planaren arabera. Horrekin batera, langile horiek ekipoak behar bezala erabiltzeko prestakuntza jaso dutela bermatu behar du.

d) Kontratista behartuta dago lana baldintza duinetan egiten dela bermatzera, bai bere enpresan, bai hark azpikontratutako enpresetan (halakorik izanez gero). Horrez gain, langileei dagokien sektoreko hitzarmenak beteko dira, batez ere pertsonalaren subrogazioari dagokionez.

e) Lanei atxikitako beharginek kontratistaren menpe jardungo dute, eta honek enpresariari dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu beharginen gainean.

f) Kontratu hau sinatzeagatik SOLOGOENek ez du inolako betebehar eta erantzukizunik izango gizarte eta lan betebeharren inguruan, lege kontratistak bere menpeko langileekin dituenak, alegia. Nolanahi ere, kontratistak konpromisoa hartzen du SOLOGOENi erreklamaziorik ez eskatzeko, haren langileek edo beste batek aipatutako betebeharrak izan ditzaketean arazoan aurrean.

g) Orokorrean, kontratistak aurre egin beharko die enplegatzaile gisa dagozkion betebeharrei, bai eta kontratistak edo honen azpikontratistek langileekin dituzten lan-harremanak edo bestelakoak erregulatu eta garatzen dituzten arauak betetzetik datozkienei ere, eta SOLOGOENi ez zaizkio leporatuko horietako edozein ez betetzeak sor ditzakeen isun, zigor edo bestelako erantzukizunak.

Edozein kasutan, kontratistak oso-osorik ordainduko dio SOLOGOENi. Plegu honetako betebeharrak ez betetzeak zehaztuta daukan kalte-ordaina, nahiz eta ebazpen judizial edo administratiboak ezarritakoa izan

h) SOLOGOENek hala eskatzen badiu, kontratistak dokumentatuta egon daitezkeen betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentu guztiak aurkeztuko



dizkio. Aurkezten ez badio edo justifikatu gabeko luzapena gertatzen bada, kontratuan ezarritako betebeharrak ez dela betetzen ulertuko da, eta, beraz, SOLOGOENek kontratua bertan behera uzteko eskubidea izango du

i) Kontratua iraungita, ezin izango dira inola ere SOLOGOENeko langile bihurtu kontratuan zehaztutako zereginetan jardun duten beharginak.

j) Kontratistari egokituko zaizkio, eta bere kontura joango dira, kontratua betearazteak ekarri ahal dizkion kostu guztiak.

k) Behar bezala justifikatuta ez dauden atzerapenak edo dokumentazioa ez aurkezteak ekarriko du kontratua ez betetzea, eta, beraz, SOLOGOENek bertan behera utz dezake kontratua.

### **21.3 Ingurumenari buruzko betebeharrak**

Kontratistak eta bere ardurapeko azpikontratek egingo dituzten lan guztietan saihestuko dituzte kalte edo eragin kaltegarria ingurumenean, animalietan eta landareetan, eta egin beharreko lanen ondorioz eragingo diren gorabehera edo kalteak ekiditeko edo murrizteko erabaki edo neurri guztiak hartuko ditu.

Ingurumen alorrean agintari eskudunek emandako eta ezarritako lege, araudi eta gomendio guztien arabera egingo ditu lan guztiak kontratistak. Horretaz gain, SOLOGOENek eman ditzakeen arau guztiak ere beteko ditu, eta bete ezean, kontratista bera izango da arduradun bakarra.

### **21.4 Hirugarrenen baimenak**

SOLOGOENek bere kabuz egin ditzakeen kontratuzko eragiketak eta kudeaketa-lanak alde batera utzita, kontratistak bere lana egiteko beharrezkoak diren baimen eta lizentziak lortu beharko ditu, haiek norbanakoei, elkarteei, enpresei eta erakundeei eskatuz. Baimen horiek lortzeko zerbait ordaindu beharko balitz, diru-kopuru hori ere kontratistak ordaindu beharko du.

## **22 ASEGURUAK**

1.- Kontratuaren loturak irauten duen bitartean, esleipendunak jarraian agertzen diren aseguruak izenpetu eta indarrean mantendu beharko ditu onartutako finantza-kaudimena duten konpainiekin, eta esleipendunak edo bere azpikontratistak eragin ditzakeen kalteen estalduraren barruan izango dute SOLOGOEN. Kontratistak honako aseguru hauek eduki behar ditu:

#### **a) Erantzukizun zibil profesionala**

Erantzukizun zibil profesionalaren aseguru honek diharduten profesionalek beste bati eragin ahal dizkieten kalte edo zauriak, pertsonalak edo materialak, estaltzeko bermea eman behar du. Horrekin batera, aseguratuak bere zereginak egitean, SOLOGOENeko langileak eta ondasunak edo haren menpeko egon daitekeen eta erantzukizuna duen besteren batek izan dezaketen akats profesionalen edo arduragabekeriaren ondorioz, ondareari eragin ahal zaizkion kalteak ere kontuan hartuko ditu aseguru horrek.

Aipatutako aseguruak, besteak beste, erantzukizun zibil patronala (lan istripuak) produktuen eta lanen ondorengokoena bildu beharko ditu eta horren gutxieneko estaldura 600.000 eurokoa izango da ezbehar bakoitzerako.

Erantzukizun zibil patronalari dagokionez, gutxieneko estaldura 150.000 eurokoa izango da kasu bakoitzeko. Lanak direla eta, esleipendunak salgaiak edo ekipiak



garraiatu behar izanez gero, garraioari lotutako erantzukizun zibilaren estaldura kontuan hartuko da.

b) Ibilgailuen aseguruua

Beharrezko erantzukizun zibila eta borondatezkoa ibilgailu guztietarako, propioak edo alokatuak eta lanak egingo diren tokian erabiliko direnak. Horiek guztiek beteko dituzte aseguruari lotutako lege eta arauak.

c) Pertsonen aseguruua

Lanetara esleitutako langile eta azpikontratatu guztien gaixotasunagatiko eta laneko istripuengatiko aseguruak, aplikagarria den legeriak xedatutakoa betez, eta langileen hitzarmenetan ezarritakoa kontuan hartuz. Legez eskatzen diren aseguru guztiak ere barne egongo dira.

d) Beharrezkoak diren beste aseguru batzuk, edo/eta aplikagarria den legeriak hala eskatuta.

Esleipendunak estaldura horiek guztiak izan beharko ditu obra behin betiko jasotzen den ondorengo sei (6) hilabetean. Era horretan, aipatutako epean, aseguruaren polizak kontuan hartuko ditu hirugarrenen erreklamazio guztiak.

2.- Aurrekoa kontuan izanik, esleipendunak uko egiten dio inolako erantzukizunik eskatzeari SOLOGOENen aurka.

3.- Kontratuari lotutako lanei ekin aurretik, kontratistak egindako aseguruaren kopia edo egiaztagiria emango dio SOLOGOENi, eta horien baldintzei eta indarraldiari lotutako aldaketan berri eman beharko du. Baldintza horiek aldatuko lirateke, behar izanez gero, SOLOGOENen iritziz.

4.- Kontratistak dokumentu honetan aipatzen diren aseguruak kontratatzen ez baditu, edo aseguruak indarrean daudela egiaztatzen dituzten agiriak hogeita hamar (30) egun naturaleko epean aurkeztu ezean, SOLOGOENek aseguru horiek egiaztatzeko agiriak aurkezteko eskatzen duen egunetik kontaktzen hasita, ordainduta daudela argi nabarmenduz, SOLOGOENek eskubidea izango du antzeko estaldura izango duten aseguruak kontratatzeko, eta horien kostuak kontratatzailearen kontura joango dira eta, hala dagokionean, SOLOGOENek kontratistari egin beharreko ordainketatik kenduko dira.

5.- Aseguruaren inguruan kontratistari begira ezarritako eskakizun guztiak azpikontrastei ere eragingo dizkiete, betiere modu egokian eta arriskuen proportzionaltasunaren arabera, eta alor honetan hutsune edo gabeziaren bat izanez gero, SOLOGOENi eman beharko dizkio azalpenak.

6.- Aipatutako aseguru edo polizetan aldaketarik izanez gero, bertan behera edo berritzeak egiten badira, adibidez, kontratistak SOLOGOENi jakinaraziko dio. Era berean, SOLOGOENek hala eskatzen baldin badio, kontratistak aseguruaren kontratuen kopiak eta ordainduta daudela egiaztatzen dituzten dokumentuak erakutsiko dizkio. Kontratistak egiaztatzen edo bidaltzen ez baditu eskatutakoa, bere aldetik kontratua ez betetzea lekarke.

7.- Kontratuan azaltzen diren lanak egitearen ondorioz gerta litezkeen istripuak direla eta, esleipendunak ez dio SOLOGOENi inolako erantzukizunik eskatuko, ez



ekonomikoa ez galerengatikoa, eta, hala dagokionean, SOLOGOENi kalte-ordaina eman beharko dio.

8.- Hirugarrenek erreklamazio edo galera handia, arazo, kalte edo lan istripu larria gertatuz gero, esleipendunak berehala jakinaraziko dio SOLOGOENi idatziz.

9.- Kontratataren kargura izango diren arrisku, betebeharrak eta erantzukizunak ez dira mugatzen klausula honetan aipatzen diren aseguruaren kontrataziora. Hori horrela, hartutako arriskuetatik erator daitezkeen betebeharrak eta erantzukizunak ez dira soil-soilik sinatutako aseguruaren zenbatekoetara mugatuko, SOLOGOENen edo besteren kaltean gauzak gertatuz gero.

10.- Atal honetan aipatutako aseguru guztien kostua kontratistak ordaindu beharko du.

11.- Esleipendunak klausula edo atal honetan aipatzen dena aintzat hartzen ez badu, kontratua ez duela betetzen ulertuko da.

## **23 EGINDAKO LANEN JABETZA ETA DATU PERTSONALEN ERABILERA**

### **23.1 Egindako lanen jabetza**

SOLOGOENen jabetzapekoak izango dira jasotako zerbitzua eta egindako lanei dagozkien eskubideak, baita hauen jabetza industrial eta komertziala ere, SOLOGOENen esku egonik horien erabilera, beste inork merkaturatu, berregin edo beste era batez erabiltzeko aukerarik izan gabe SOLOGOENek espresuki baimentzen ez badu, eta ondorioz, honek jabetzari dagozkion agiri edo materialak ematea eskatu ahal izango du, aurrekariak, datuak eta prozedura guztiak barne.

Jabetza intelektual edo industrialaz babestutako produktuak garatzea eta erabiltzeko moduan jartzea xede duten zerbitzu-kontratuek SOLOGOENen esku utziko dute aipatutako jabetza intelektual edo industrialak.

Jabetza intelektualari atxiki dakizkiokeen lanak SOLOGOENi eskusibaz emandakoak direla ulertuko da, salbu eta alde aurretiko eskubideak dauden kasuetan, halakoetan emakida eskusibotasunik gabe egin daitezke eta.

Kontratua indargabetu ahal izango da, baldin eta egiaztatzen bada kontratistak kontratugaitzat jo daitezkeen lana, osorik nahiz zatika, hirugarrenen esku utzi duela SOLOGOENen baimenik gabe. Kontratua indargabetzeko kausa hau gertatzen bada, kontratistak kontratua bete gabe utzi duela ulertuko da ondorio guztietarako.

### **23.2 Datu pertsonalen erabilera**

Datu pertsonalen erabileratzat honako jarduerak hartuko dira: izaera automatizatua izango duten ala ez eragiteka eta prozedura teknikoak, zeinen bidez datuak bildu, grabatu, gorde, prestatu, aldatu, blokeatu eta deuseztatzea ahalbidetzen duten. Halaber, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzien bidezko datu konexioak, baldin eta horiek pertsona fisikoa nor den jakin edo identifikagarria izateko bidea ematen duen edozein informazioa badute.

Kontratuan datu pertsonalen erabilera kontuan hartzen baldin bada, edo enpresa kontratataren edo azpikontratataren sarbidea horrelako datuetara aurreikusten baldin bada, honako arauak hauek bete beharko dira:

1. Datuak erabiltzeko arduradunaren jarraibideen arabera erabiliko dituzte datuak kontratistak.
2. Erabiliko diren datu pertsonalak kontratu hau gauzatzeko beharrezkoak direnak baino ez dira izango, eta ezin izango dira erabili bestelako xedeekin.





3. Kontratu hau gauzatzeko erabiliko diren datuak ez zaizkio inori emango. Hori horrela, kontratistak konpromisoa hartzen du datu horiek edo datu horiekin eraturako fitxategiak ez jakinarazteko, eskualdatzeko, emateko edo agerrarazteko besteri inolako bidez (ahoz, idatziz, posta elektronikoz, paperez edo sarbide informatikoz); ezta bistartzeko ere.
4. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluan xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzean arituko diren kontratistak eta gainerako eragileek isiltasuna gorde beharko dute zenbait daturen inguruan. Isiltasun gordetzeko behar hori kontratua amaitu ondoren ere izango da indarrean.
5. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzearen ondorioz, kontratistak konpromisoa hartzen du datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko, eta horretarako, neurri tekniko, administratibo eta eraketako guztiak hartuko dituela. Ildo horretatik, honako arau hauek beteko ditu:
  - a) Lanei ekin aurretik, enpresa esleipendunak kontratazio-organoari datu hauek eman beharko dizkio: datu pertsonaletara sarbidea izango duten langile guztien izena, abizenak, zereginak eta lana egingo duten lekua. Kontratua gauzatzen den bitartean aldaketaren bat egin behar izanez gero, alta edo baja eman langileren bati, enpresa esleipendunak haren berri emango du astebeteko epean, aldaketa gertatzen den egunetik kontatzen hasita. Enpresa esleipendunak nahiz aipaturako langile horiek konpromisoa hartu behar dute idatziz isiltasun profesionala gordetzeko datu pertsonalez.
  - b) Enpresa esleipendunak segurtasun neurri egokiak hartu beharko ditu, plegu honetan azaltzen diren tratamendu zentroak, ekipoak, lokalak eta programak behar bezala erabiltzeko.
  - c) Kontratu honen xedea diren lanak bukatu eta gero, datu pertsonalak izango dituzten euskarri guztiak itzuliko ditu enpresa esleipendunak, edo horrelako datuak izango dituzten fitxategiak ezabatu edo deuseztatu ditu. Deuseztapena era egokian egingo da, hau da, datuak berreskuratzeo aukerarik ez izateko. Fitxategiak itzultzeko edo deuseztatzeo egiaztapena akta bidez egingo da, enpresa esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendariak sinatuko duten akta horretan azalduko da ekintza hori.
- 6 Kontratua indarrean egongo den bitartean, SOLOGOENek kontrolak egiteko eskubidea izango du, ezarritako segurtasun neurriak, eta hala badagokio, neurri zuzentzaileak behar bezala betetzen direla egiaztatzeo.

## 24 LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA

- a) Kontratuaren lagapenerako legezko eskakizunei dagokionez, SPKLen 209. artikuluan zehaztutakoa bete beharko da. Dena dela ere, SOLOGOENek aldeztu aurretik eta berariaz baimendu beharko du kontratuaren lagapena.

Kontratua ezin izango da laga, berau esleitzeko arrazoi erabakigarriak jatorrizko kontratistaren gaitasun pertsonal edo teknikoak izanez gero.

- b) Kontratistak azpikontratak egin nahi izanez gero, SPKLen 210. artikuluan zehazten diren xedapenak bete behar ditu. SOLOGOENi azpikontratu hori adierazten dion idatzian, aipaturako xedapen horiez gain, azpikontratua egikaritzeko baldintza teknikoak ere azaldu beharko dira.

Nolanahi ere, azpikontratazioek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:



- (i) Kontratastak aldeztatik jakinarazi behar dizkio SOLOGOENi idatziz egin nahi dituen azpikontratu guztiak, azpikontrata bakoitzari lotutako kontratuaren aldea adieraziz.
- (ii) SOLOGOENek aldeztatik onartu behar du.

Hala ere, jakinarazitako azpikontratazioa ez onartzeko eskubidea bere gain hartzen du SOLOGOENek, baldin eta proposatutako azpikontrataren gaitasun teknikoa nahiko egiaztatuta ez bada, edo azpikontrata gauzatzeko baldintza teknikoak aski bermatuak ez badaude.

Azpikontratuak jatorrizko kontratastaren mende geratuko dira eta jatorrizko kontratastari hori izango da, SOLOGOENi dagokionez, Plegu honetan eta kontratua zehazten diren betebeharren ardura izango duena.

## **25 BEHIN BETIKO JASOTZEA**

Obra behin-behineko jasotzeko izapideak abian jarriko dira esleipendunak kontratuaren arduradunari, SOLOGOENek hautatutakoari, honako hau jakinarazten dionean:

- (i) Obra I. eranskinean azaldutako zehaztapen teknikoen eta esleipendunaren eskaintza adierazitakoaren arabera amaitu dela.
- (ii) Akatsik aurkituz gero, den-denak konponduta daudela.
- (iii) Indarrean dagoen legeriak eskatzen duen dokumentazio guztia prestatuta dagoela.
- (iv) Behin-behineko instalazioak kendu direla eta lekua behar bezala garbitu dela.

Hamabost (15) eguneko epea igaro baino lehen, kontratuaren arduradunak obra aztertuko du eta egiaztatuko du obrak arau edo baldintza teknikoak eta I. eranskinean esaten dena betetzen dituela; baita eskaintza eta kontratu honetan jasotzen dena ere.

Ikuskapena edo azterketa positiboa bada, kontratuaren arduradunak obra behin betiko jasotzeko akta egingo du, ale bitan, eta SOLOGOENi eta esleipendunari bidaliko die kopia bana. Onarpen horrek izaera loteslea izango du berme-aldiak hasteko.

Kontratua azaltzen diren lanetan kontratuaren arduradunak akatsik aurkituz gero, ordea, esleipendunari jakinaraziko dio eta honek hamabost (15) eguneko epean, gehienez ere, konpondu beharko lituzke akatsak.

Goraxeago adierazi den epean esleipendunak aipatutako akatsak konponduko balitu, kontratuaren arduradunak obra behin betiko jasotzeko akta egingo luke, ale bitan, eta SOLOGOENi eta esleipendunari bidaliko die kopia bana, berresteko. Onarpen horrek izaera loteslea izango du berme-aldiak hasteko.

Prestazio akasidunei lotutako arazoak adierazitako epean konpondu ezean, SOLOGOENek bertan behera utz dezake kontrata eta kalte-ordainengatik eskabidea egin dezake. Esleipendunak ordura arte jasotako kopurua eta %20 gehiago izango da kalte-ordainaren zenbatekoa.

## **26 HIZKUNTZA BALDINTZAK ZERBITZU KONTRATUETAN**

Enpresa esleipendunak kontratu honi lotutako jarraibideei buruzko eskuliburuak edo ondasunen eta produktuen dokumentazioa EAEko hizkuntza ofizial bietan emango ditu. Horren barruan sartzen dira software guztien testuzko eta entzunezko interfazeak.



Administrazio kontratu-egilearekiko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauxe da “normalean euskara erabiltzea”: a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakien langileek euskaraz egingo dute, hasiera baten, kontratua gauzatzeko zereginak direla eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean.

Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezen, eta b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

## **27 KONTRATUAREN ARDURADUNA**

Izaera teknikoko erabakiak hartzerakoan, SOLOGOENek kontratuaren arduraduna izenda dezake, kontratistak egindako lanen gaineko aholkularitza eta ikuskapen lanak egin ditzan, eta kontratazio-organoaren edo honek ordezkariatza aukeratzen duen pertsonaren eskumena izango da kontratuaren arduradunak kontratuaren garapenez egindako jarraipenaren ondoriozko erabakiak hartzea.

Era berean, aintzat hartuko ditu Plegu honetan egotzitako zereginak. Kontratazio-organoak kontratuaren arduradunaren esku utz ditzake kontratuaren burutzapenez dituen eskubide eta ahalmenak, guztiak edo batzuen batzuk.

## **28 KONTRATUAREN IRAUNGIPENA/DEUSEZTAPENA**

Amaitu delako, bete delako edo eten delako iraungiko da kontratua.

Kontratua iraungitzeko arrazoiak baldintza-orri honetan, Kode Zibilean eta SPKLen 206. artikuluan zehazten direnak izango dira. Baita honako arrazoi hauek ere:

- (i) Baldin eta kontratua gauzatzeko garaian, hirugarrenen ekintzen ondorioz, kontratua gauzatea ezinezkoa balitz ikuspuntu tekniko nahiz ekonomikotik, bidezkoa litzateke, SOLOGOENek egokituz joz gero, kontratua indargabetzea, eta ondorioz, kontratistari SOLOGOENek eskatu eta bere horreketan gauzatuak lanak ordainduko litzazkioke soilik, arrazoi honengatik SOLOGOENi kalte-ordaina eskatu edo erreklamazioa egitea bidegabekoa delarik.
- (ii) Kontratistaren berandutza kontratuan adierazitako lanak egiteko epea betetzerakoan.
- (iii) Kontratuaren gainerako funtsezko betebeharrak bete ez betetzea.

Ezarritako baldintzen arabera arrazoi hauetako edozein gertatuz gero, SOLOGOEN baimenduta egongo da kontratua indargabekotzat jotzeko, eta Plegu honen eta indarreko araudiaren arabera dagokion kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango du, betearazpen subsidiarioaz baliatzeko aukera barne, egin gabe geratu diren betebeharrak gauzatu edota lanak gauzatu jarraituz, berez edo egokituz jotzen dituen pertsona edo enpresen bitartez, kontratistaren kontura.



## **29 JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Jurisdikzio Zibileko Epaitegiak izango dira (SPKLren 21.2 artikulua) kontratu hau prestatzean, esleitzean, interpretatzean, betetzean eta amaitzean sor daitezkeen auziak erabakitzeko eskudunak, eta bi aldeak borondatez jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mendean. Era berean, berariaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako foroiei.



## I. ERANSKINA

### ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN PLEGUA, GILTZA ESKUAN ERAKOA, 20 kW-eko EGUZKI INSTALAZIO FOTOVOLTAIKO BAT HORNITU, JARRI, ABIARAZI ETA MANTENTZEA KONTRATATZEKO

#### **Arauzko zehaztapen teknikoak**

- (i) Eguzki-instalazio fotovoltaikoa osatzen duten atal guztiek bete beharko dituzte aplikagarriak izan dakizkiekeen arau eta lege oro.
- (ii) Eguzki-instalazio fotovoltaikoa sarera konektatzeko behar den ekipo osagarriak bete beharko du 1663/2000 Errege Dekretuak xedatutako betekizunak.

#### **Alderdi teknikoak**

- (i) Eskaintzetan mono panel eta polikristalinoak zein geruza finekoak aurkez daitezke.
- (ii) Instalazioen gehieneko gairik gabeko gaindimentsionamendua ez da izango alderantzikagailuen irteerako potentzia baino %20 handiagoa, eskatutako potentzia eta enpresa elektriko banatzaileak onartua.
- (iii) Behe-tentsioan jarduteko, sare elektrikora konektatzeko guneak eguzki plantak kokatuta egongo diren eraikin berean izango dira. Halaber, gainerako ekipo osagarriak (alderantzikagailuak, kableak, neurria...) erakin horretan izango dira.
- (iv) Panelen eusteko egiturak material egokiaren bidez fabrikatuko dira; batez ere, muturreko klimatologiari aurre egiteko, bai kalitate aldetik (presentzia, tratamenduak, herdoilaren aurkakoa...), bai kontrako egoera atmosferikoen aldetik.

#### **Salbuespenak**

- (i) Azkenean, baldin eta lan osagarriak egin beharko balitz, adibidez, interkonektio elektrikoaren bat gune batean eguzki planta kokatuko den erakinetik at, lan horiek aparte kontratatuko lirateke.

#### **Instalazioaren ezaugarriak**

- (i) Eranskin honen amaieran eguzki instalazio fotovoltaikoa jarriko den eraikinen ezaugarriak biltzen dituen fitxa azaltzen da.

#### **Izapide administratiboa**

- (i) Behin betiko esleipendunak bere gain hartu beharko du kudeaketa administratiboa, kupoa behin betiko esleipena egiten den unetik aurrera.

#### **Mantentze prebentiboaren baldintza teknikoak eta maiztasuna**

- (i) Mantentze prebentiboa pertsonal tekniko kualifikatuak egingo du, eta horren arduradun bakarra esleipenduna izango da.
- (ii) Mantentze prebentibo plana. Zenbait eragiketa egingo dira, esate baterako, ikuskapenak, jardueren egiaztapenak eta abar. Hori guztia instalazio bakoitzean



aplikatuz gero, instalazioak ondo funtzionatzeko, zerbitzu egokia emateko, babesteko eta irauteko lagungarria litzateke.

Instalazioen mantentze prebentiboaren barruan, instalazio bakoitzera hiru (3) bisita egitea urtean, urtarrilean, maiatzean eta irailean, aurreikusten da. Bisita horietan honako jarduera hauek egingo dira:

- Babes elektrikoaren egiaztapena.
- Moduluen egoeraren egiaztapena: jatorrizko egitasmoarekin bat datorren egiaztatzea eta konexioen egoera aztertzea.
- Alderantzikagailuaren egoeraren egiaztapena: funtzionamendua, seinale-lanparak, alarmak...
- Kable eta terminalen egoeraren egiaztapena (lur hartuneko kableak eta bornen estutzea barne).
- Bisita bakoitzean txosten tekniko bana egitea; bertan, besteak beste, instalazioen egoera eta izandako gorabeherak jasoko dira. Horrekin batera, elektrizitatea saltzeko kontagailuan neurtutako ekoizpen metatua ere azalduko da.
- Egindako mantentzeari lotutako eragiketak mantentze liburu batean jasotzea. Horretan, mantentze lanetan arituko diren langileen datuak idatziko dira (izena, titulazioa, enpresaren baimena).
- Eguzki-instalazioen eragiketari jarraipena egitea hilero, alderantzikagailuei lotuko den monitorizaio sistemaren bitartez..

#### **Instalazioaren mantentze zentroa**

- (i) Era berean, instalazioan akats edo matxurarik gertatuz gero, eta haren konponketa edo errebisioa kontratatutako bermearen mantentze zuzentzailean sartuta baldin badago, horretaz arduratzen den enpresak hamabi (12) orduko epean, gehienez ere, joan beharko du instalaziora, akats edo matxuraren berri ematen dioten unetik, eta horrek plantaren funtzionamenduari eragiten badio. Akatsak edo matxurak bete-betean eragiten ez badio plantaren funtzionamenduari, aldiz, berrogeita zortzi (48) orduko epean, gehienez ere, joan beharko da instalaziora.

<b>MANTENTZE ZENTROA</b>
<b>Enpresaren izena:</b>
<b>Helbidea:</b>
<b>Harremanetarako pertsona:</b>
<b>Telefona:</b>
<b>Posta elektronikoa:</b>

## EZAUGARRIEI BURUZKO FITXA

### **KOKALEKUAREN EZAUGARRIAK**

- Txapa-sandwich erako estalkia, ia erabat zapala (inklinazioa  $5^{\circ}$ , gutxi gorabehera).
- Hego-ekialde orientazioa (desbiderapena  $20^{\circ}$  ekialdera).
- Estalkiaren inguruan 1 m-ko altuera duen hormatxo bat dago.



### **EGUZKI PLANTAREN ESKAKIZUN TEKNIKOAK**

- 20 kW-eko potentzia izendatua.
- Eguzki eremuaren gehieneko potentzia: potentzia izendatua baino %20 handiagoa.
- Eguzki planta estalkiari gainjarria ipiniko da, argi-zulorik ez dagoen aldean.
- Alderantzikagailuaren kokalekua: ikastetxearen koadro elektrikoa dagoen gela.
- Sarera konexioa behe-tentsioan egingo da erakinean bertan.

**II. ERANSKINA**  
**LIZITATZAILEAREN ARDURA-ADIERAZPENA, ADMINISTRAZIO PUBLIKO EKIN**  
**KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ DUELA EGIAZTATZEKO**

**Izen-abizenak:** .....  
**Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:** .....  
**Ordezkatzen duen enpresa:** .....  
**Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:** .....  
**Enpresaren bulegoen helbidea:** .....  
.....

**ADIERAZTEN DUT:** Egiaztatzen dut ez nik, ez ordezkatzen dudan merkataritza-sozietateak ez dugula urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. eta 50. artikuluetan araututako kontratatzeiko debekurik. Halaber, indarrean dauden xedapenekin bat etorritz, egiaztatzen dut enpresak egunean betetzen dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hori guztia egiaztatzen duten agiriak eta dokumentuak aurkezteko konpromisoa hartzen dut kontratua formalizatu baino lehen, horren esleipenduna izango banaiz.

[...]n, 2011ko [ ]aren ....(e)an.

[*Enpresaren/lizitatzaillearen izena*]  
Ahalordez



### III. ERANSKINA BANKU-ABALAREN EREDUA (BEHIN BETIKO BERMEA)

[...] bankuak, (aurrerantzean, “**Bankua**”) eta haren izenean eta ordezkartzan [...], egintza hau egiteko bezainbat aginpide duenak, [...] notarioaren aurrean, [...] protokolo-zenbakiarekin, [...] egunean emandako ahalmenaz baliaturik, eta aldatu ezta kendua ere izan ez dena.

ABALATZEN dio [...] sozietateari (aurrerantzean, “**Sozietatea**”), lehen eskarian eta era solidarioan, .I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duenari, [...], SOLOGOENen aurrean (aurrerantzean, “**Onuraduna**”), I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duena, [...] euroko gehieneko zenbatekoraino (aurrerantzean, “**Bermatutako zenbatekoa**”), [kontratuaren izena idatzi] xedea duen kontratua modu egokian garatu eta gauzatzeko, [...] datarekin Sozietateak eta Onuradunak sinatutako kontratua, eta Bankuak ezagutzen duela adierazita.

Abalaren baldintzak hauexek dira:

- (i) Bankuak berriaz uko egiten die ondasunen ordenari, eskusioari eta zatiketari; baita defentsa agertarazteko era guztiei ere.
- (ii) Abal honek izaera abstraktua du: beraz, Onuradunak ez du zertan adierazi edo justifikatu bermea gauzatzeko dituen arrazoiak, eta bermearen kontura ordainketaren eskariaren aurrean, Bankuak ezin izango du oztopo edo eragozpenik jarri, Sozietateak jar ditzakeen eragozpenak edozein direla ere.
- (iii) Onuradunak eskatzen duen diru kantitatea ordaindu beharko dio Bankuak bost (5) egun naturaleko gehieneko epean, idatziz edo beste modu batez [...] helbidera egiten den eskariaren egunetik kontaktzen hasita.
- (iv) Onuradunak eskatuko duen diru-kantitatea ordainketa batean edo bitan egingo dio Bankuak, onuradunak esango dion eran; betiere Bermatutako zenbatekoa gainditzen ez bada.
- (v) Onuradunak emandako bankuaren kontu-korrontean egingo dira ordainketak, kenketarik gabe, honako arrazoia hauengatik: zergak, eskubideak, karguak, konpentsazioak, erreklamazioak, eta oraingo edo etorkizuneko kenketa edo atxikipenak.
- (vi) Abal honen iraupena mugagabea izango da, Onuradunak baliogabetzeko baimena eman arte, idatzizko adierazpen baten bidez.
- (vii) Berme hau Espainiako zuzenbidearen arabera arautzen da. Gerta daitezkeen auziak erabakitzeke bi aldeak jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mende. Era berean, berriaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako jurisdikzioei.

Berme hau Bermeen Erregistro Ofizialean erregistratu da, [...] zenbakiarekin, 20[ ](e)ko [ ]aren ....(e)an.

[Lekua eta eguna]  
[Erakundearen izen soziala]  
[Ahaldun(ar)en sinadura]

**IV. ERANSKINA**  
**EKONOMIA JARDUEREN GAINEN AITORPENAREN EREDUA**

**Izen-abizenak:** .....  
**Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:** .....  
**Ordezkatzen duen enpresa:** .....  
**Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:** .....  
**Enpresaren bulegoen helbidea:** .....  
.....

**Nire erantzukizunpean, adierazten dut:**

Tokiko zergei buruz indarrean dagoen araudiaren eta, zehazki, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren araupenaren arabera, jarraian zerrendatzen diren epigrafeetan zerga horren matrikulan alta ematera behartuta dago enpresa, eta ez du bajarik hartu zerga horretan:

.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....

[...]n, 2011ko [ ]aren ....(e)an.

[Enpresaren/lizitatzaillearen izena]  
Ahalordez

**V. ERANSKINA**  
**FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEEN LABURPEN TAULA**

<b>MODULUAK</b>
<b>Marka/eredua:</b>
<b>Potentzia (Wp):</b>
<b>Tolerantzia (%):</b>
<b>Errendimendua (%):</b>
<b>ALDERANTZIKAGAILUAK</b>
<b>Marka/eredua:</b>
<b>Potentzia izendatua (W):</b>
<b>INSTALAZIOAREN GAINERAKO EKIPOAK (zehaztu ezaugarriak)</b>
<b>Egitura metalikoak:</b>
<b>Segurtasun ekipo elektrikoak:</b>
<b>Kontagailua:</b>
<b>Kableen instalazioa:</b>

**VI. ERANSKINA**  
**FORMULA BIDEZ EBALUATU AHAL DIREN IRIZPIDEEN DOKUMENTAZIOA**  
**PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA MANTENTZEARENA**

[...] jaun/andreak\*, ondorio hauetarako honako helbidea duenak: [kalea, zenbakia, solairua eta P. K.], [...] NAN, bere izenean arituz, edo “[...]” aren izenean arituz, honako helbide duena [kalea, zenbakia, solairua eta P. K.], [...] telefonoa eta I.F.K.: [...].

**ADIERAZTEN DU**

- I. SOLOGOENek deitutako [kontratuaren izena idatzi] xedea duen kontratua arautzen duen klausula administratibo berezien plegua eta gainerako dokumentazioa ezagutzen dituela.
- II. Kontratu hau sinatzeko, ordezkutzen duen enpresak indarrean dagoen legeriari lotutako betebeharrak eta eskakizun guztiak betetzen dituela.
- III. Kontratu honen xedea gauzatzeko aldera, honako diru-proposamena hau egiten du: ... euro [adierazi letraz eta zifraz], gehi BEZari dagokion [...] euro [adierazi letraz eta zifraz]. Prezio horren barruan kontzeptu guztiak sartzen direla ulertuko da, tasak eta zergei lotutako gainerako gastuak barne.
- IV. Kontratu honen xedea den eguzki instalazio fotovoltaikoa egiteko, Wp bakoitzaren preziorako proposamen hau egiten du: ... euro [adierazi letraz eta zifraz], gehi BEZari dagokion [...] euro [adierazi letraz eta zifraz]. Prezio horren barruan kontzeptu guztiak sartzen direla ulertuko da, tasak eta zergei lotutako gainerako gastuak barne.
- V. Instalazioaren mantentze prebentiboa aurrera eramateko, ondoko taulan ageri den proposamen ekonomikoa egiten du. Prezio horren barruan kontzeptu guztiak sartzen direla ulertuko da, tasak eta zergei lotutako gainerako gastuak barne.

<b>MANTENTZEA</b>			
	BE Z ga be	BE Z	GU ZTI RA
Mantentzearen prezioa urtean, instalazioaren berme aldirian			
Mantentzearen prezioa urtean, instalazioaren berme aldiritik at			
Mantentze kontratuaren prezioan, bermetik kanpo dauden elementuen mantentze zuzentzaileari lotutako eragiketak badira			
- Lekualdaketei dagozkien gastuak sartzen dira? (bai/ez)			
- Langileei dagozkien gastuak sartzen dira? (bai/ez)			

[...]n, 2011ko [ ]aren ....(e)an.

[Enpresaren/lizitatzaillearen izena].  
 Ahalordez.

\*Aldi baterako enpresa-elkartea bada, hori osatzen duten kide guztiek egingo dute proposamena.

**Ohar garrantzitsua:** eranskina honen hurrengo orrietan proposamen ekonomikoren zehaztapenak azalduko dira; baita mantentzearen lan eta ezaugarrienak ere.

## VII. ERANSKINA

### ENPRESA LIZITATZAILEAREN OINARRIZKO DATUAK

<b>Enpresa lizitatzaillearen izena</b>	
<b>IFK / IFZ</b>	
<b>Jarduera Nagusia</b>	
<b>Helbide soziala</b>	Zentrala:
	Bulegoak EAEn:
<b>Harremanetarako</b>	Harremanetarako pertsona:
	Helbidea:
	Tel.:
	Faxa:
	e-mail:
<b>Langile-kopurua</b>	Guztira:
	EAEn:
<b>Negozio bolumena</b>	Guztira:
	EAEn:
<b>Akziodunen edo enpresa taldearen izena</b>	
<b>Kudeaketa sistemen ziurtapena (ISO, UNE edo baliokideak)</b>	

**VIII. ERANSKINA**  
**ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOA KONFIDENTZIAL IZENDATZEKO EREDUA**  
**(hautazkoa aurkeztea)**

**Izen-abizenak:** .....  
**Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:**.....  
**Ordezkatzen duen enpresa:** .....  
**Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:** .....  
**Enpresaren bulegoen helbidea:**.....

**ADIERAZTEN DU**

(\*) zenbakidun kontratazio-espeditenteko ..... (*gutun-azala zein den zehaztu*)  
gutun-azalean jasotako agirietatik, jarraian aipatzen diren informazioak eta eskaintzako  
alderdiak konfidentzialak direla, merkataritzako sekretuekin edo sekretu teknikoekin lotura  
izateagatik. Hauek dira, beraz, agiri konfidentzialak:

Adierazten du, baita ere, agiri horiek konfidentzialak direla ondoko arrazoi hauengatik:

(Lekua, eguna eta sinadura)

(\*) Plegu honetako karatulan dagoen espeditente zenbakia idatzi.